

# Euskalwashing



BEA SALABERRI  
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

**E**uskaraldia bukatzeaz da lerro hauek idazten ditudan orduan, oraindik bukaera argazkiak eskas dira. Ez da dudarik ederrak izanen direla, besta handi batean hartutakoen antzekoak.

Bizkitartean, artoski irakurri ditut, hemen edo beste zenbait agerkitan, ni baino adituagoak direnek idatzi lerro, erran dezagun, minduak, EAE edo Nafarroan iragandakoez. Aitortu behar da, bestalde honetan ere, Euskaraldiaren edizio hau sentsazio gazi gozoarekin bukatzen dela.

Beste aldietan bezala, txapa jantzi da, konbikzioz, eta euskararen alde den edozein gauza, ezdeusena ala potoloena, denak baitira baliotsu. Alta, aurreko horien gisa, Euskaraldiaren ondotik pasa garelako sentsazioa partekatzen dut. Hala diot, ororen buru ez baita iragarritako lurrikara gertatu, euskararen alde-kotasuna handituz omen doan lekuan.

Edizio honetan, agerian egon dira instituzioak, aurrekoetan baino anitez gehiago. Eta iparraldean behintzat, ez da instituzio horien partetik ezohiko ezer gutxi agertu, inbertsio eta komunikazio ariketatik haratago. Erran nahi dut instituzionalki ez dela izan berritasunik, suzko efektua eraginen zuenik. Adibidez, epe

ertaineko engaiamendu batetik harago, ekintza konkretu bat markatuko zuena norabide aldaketa: berri on bat, zerbitzu bat edo besteren euskalduntze masiboaren urratsa, baliabide edo egitasmo bereziren baten martxan ematea, erabaki bat, gaiarekin hurbiltasun eta inplikazio gehiago konkretizatzea.

Alta, bazen egiteko, frenteak ez dira eskas. Euskalgintza leher egiten ari da, hatsanturik; ez da asterik pasatzen herri mugimenduko egituretarik batek dituen arazoez entzun gabe: AEK-ko langileen baldintza eta sariak, Uda Lekuren ezintasuna, Hiriburuko haurren berogailu arazoak, azterketen erdaltasun eternala, komunikabideen urritasuna. Euskara biluzik da.

Agian Euskaraldiaren baitako edo euskararen eguneko berri ona izan zitekeen arlo horietatik baten arazoari aterabide duin eta iraunkorra ematea. Sinesgarriagoak izateko doia. Ekimen puntaletatik harago joan zitekeen.

Alabaina, ordu hauetan, oraindik ez da halakorik gertatu. Bazitekeen ausardia gehiago ukaitea egituren partetik. Kausitu ala ez, herriaren gain den kontu bat egon da.

Ondorioz, herri eta egituren arteko komunioa izan behar zena euskararen

probetxu, epela izan da. Agian, euskarak arazo gehiegi dituelako, bestelako urgentziak dituelako eta ezin baita burua denetan ukan. Agian hizkuntz politika publikoa urtez urte eskasa gertatzen delako, bilanak zuritzearekin akituak garelako eta betebeharra herriaren gain uzten dutela ikusteaz nekatuak garelako. Kontua beti delako militantziaren gain.

Euskararen instituzionalizazio prozesuaren kontra ez da deus erraten ahal partikulazki, ororen buru urteetako aldarrikapenen emaitza delako.

Haatik, bada pundu bat, begi bista-koa gertatzen dena, entzuten ez dena, nahiago dena ez aipatu: iparraldean ez da egon euskalduntze masiborik, ez alfabetatzerik, ez ofizializatzerik, ez neurri egokirik. Transmisioaren problematikari ez zaio itzulirik eman, ez da hizkuntzaren aldeko iraultzarik gertatu. Gero eta gutxiagok daki, dentsitate txikiagoan, auskalo zein gaitasun edo erosotasun mailarekin. Errealista ote da, baldintza horietan, gehiago eta gehiagorekin egitea eskatzea, hiztun osoen kopurua segurtatua ez denean? Pertinentea ote da jokatzeko transmisioaren kontua konpondua balitz bezala? Dena banakoan borondate kontua balitz bezala? ●